

4. (1534)



4.1. 1534. URTEA

4.1.1. Aizarnazabalgo elizako patronatua eta Otxoa Martinez Beduakoaren auzia

- 1531-IV-27an Joan Beltran Iraeta hil zenean, Otxoa Martinez Beduakoa zestoarrak Joan Mirubiarekin Aizarnazabalgo eta Oikiako elizetako patronatua eliztarrentzat berreskuratu nahi izan zuten. Iruñeko apezpikuari aipatutako elizetarako benefiziadu berri bana ere aurkeztu zioten.

Enperadoreak bi elizetako patronatua (eta Zestoakoa eta Aizarnakoa) Alonso Idiakaitz tolosarrari eman zion, eta eliztarrak aurka atera ziren. Otxoa Martinez Beduakoak gastu handiak egin zituen auzietan Saiazko eta Oikiako eliztarren alde, baina hauek ez zizkieten ordaintzen eta Otxoa Martinezek Gipuzkoako korrejidorearengana auzitara eramane zituen (ikus [XVI. m. (33-IX) 1] agiria).

- 1534-I-3an, Azkoitian, Joan Perez Arranibarkoa prokuradoreak Otxoa Martinez izenean salaketa jarri zion korrejidoreari, aurkakoak auzitara azaldu ez zirelako.

- 1534-I-15ean, Azkoitian, Luis Lujan korrejidorearen ordezkari Joan Martinez Asardikoak, agindua bidali zion Saiazko eta Oikiako unibertsitateetako zinegotzi nagusi Martin Diaz Mirubikoari, auzitara joan zedin. Joan Santxez Zumaiakoa eskribauak jakinarazi zion aginduak zioena Martin Diaz, Zumaian, otsailaren 1ean, aurrean lekuko hauek zirela: Joan Ruiz Arteagakoa, Andres Martinez Malleakoa eta Joan Fernandez Arbostaingoa eskribaua.

- 1534-II-5ean, Azkoitian, Otxoa Martinezek lehengo salaketa bera egin zuen.

- 1534-IV-1ean, Donostian, korrejidoreak epaia eman zuen. Lau egun barru zin egitera azalduko ziren bi aldeak, eta elkarrentzat prestatu galderei erantzungo zieten. Alde bakoitzak bere lekukoak aurkeztuko zituen.



4.1. irudia. Aizarnazabalgo eliza.

- 1534-V-4an, Tolosan, Joan Perez Arranibarkoak Otxoa Martinez Beduakoaren izenean epea 80 eguneraino luzatzea eskatu zion korrejidoreari, testigantzak aurkezteko.

- 1534-V-8an, Tolosan, Luis Lujan korrejidoreak agindua bidali zion Zestoako Esteban Eztiola eskribauari, Otxoa Martinez Beduakoaren eskribau izan zedin, eta Saiazkoekin zuen auzian lekukoei, beste aldearen eskribauarekin batera, testigantzak jaso ziezakien. Eskribauak galdeketa nola egin behar zuten zehaztu ziren korrejidoreak.

- 1534-V-20an, Tolosatik, korrejidoreak Martin Diaz Mirubikoa zinegotzi nagusiari agindua bidali zion, hiru

eguneko epean Saiazko lau lekuko (adintsuak eta gaiaz zekitenak) izenda zitzaten, eta, ahalordeaz hornituta, Otxoa Martinezen galderei erantzungo zieten.

- 1534-V-22an, Zumaian, Joan Perez Elorriagakoa eskribauak korrejidorearen aginduaren berri eman zion Martin Diaz. Joan Fernandez Dorrekkoa eta Joan Arbestain izan ziren lekuko.

- 1534-V-31n, Zumaian, Joan Perez Elorriagakoa Otxoa Martinezen eskariz dei egin zion Martin Diaz, hain zuzen Ibañarrietan Esteban Eztiola eskribauaren bidez lekukoen testigantzak jaso nahi zituelako. Martin Diazek bere aldetik bi eskribau izendatu zituen: Getariako Beltran Untzeta eta Zumaiaiko Joan Perez Elorriagakoa. Lekuko Joan Arbestain eskribaua eta Joan Mendaro apaiza izan ziren.

- 1534-VI-2an, Aizarnazabalgo elizaren atarian, Otxoa Martinezek Zestoako Esteban Eztiola eta Joan Perez Elorriagakoa eskribauei eskea egin zien, lekukoei testigantzak har ziezazkieten. Bi eskribauek zin egin zuten beren lana zintzo beteko zutela. Ondoren Otxoa Martinezek bere anaia Lantzarote Beduari ahalordea eman zion lekukoak aurkez zitzaiz. Gertatuaren lekuko hauek izan ziren: Martin Diaz Mirubikoa eta Joan Urainziar eta Martin Etxezarreta apaizak. Otxoa Martinez Beduakoak lekuko hauek aurkeztu zituen: Martin Etxezarreta eta Joan Urainziar apaizak eta Joan Mirubia. Hauek zin egin zuten egia aitortuko zutela.

Ondoren, Oikiako Otsangon, Otxoa Martinez Beduakoak lekuko hauek aurkeztu zituen: Saiazen bizi zen Joan Asu eta Getariako Migel Iturregi. Hauek ere zin egin zuten. Otxoa Martinezek lekukoentzat galdera hauek prestatu zituen:

1) Ea ezagutzen zituzten Otxoa Martinez Beduakoa, eta Saiaz eta Oikia.

2) Ea zekiten 1531-IV-27an Joan Beltran Iraeta hil zenean enperadoreak Alonso Idiakaitz tolosarrari mesede egin ziola Aizarnazabal eta Oikiako elizetako patronatua emanaz. Ea zekiten tolosarrak prokuradoreak

bidali zituela patronatuaz jabetzera, eta aurka egiteko eliztarrek Otxoa Martinezen ahalordea eman ziotela, gastuak ordainduko zizkiotela aginduta. Ea zekiten Otxoa Martinezek korrejidorearengana joanda izapideak egin zituela, eskribauei ordaindu ziela eta beste hainbat gastu ere ordaindu zuela.

3) Ea zekiten Alonso Idiakaitzen prokuradoreen aurka Otxoa Martinez Oikiako elizan bi apaizekin barruan itxita egon zela, korrejidoreak 6.000 marraiko isuna ezarri ziola eta gutxienez bost legoatararen denboraldi baterako erbesteratu zuela. Ea zekiten isuna Frantzisko Perez Idiakaizkoa eskribauari (korrejimenduko entzutegikoari) ordaindu ziola, eta kartzelan zein erbestean 30 dukat baino gehiago gastatu zituela.

4) Ea zekiten Alonso Idiakaitzekin zuten auzian Altzaga doktoreari bere lanagatik 6 dukat ordaindu zizkiola.

5) Ea zekiten Saiaz eta Oikiako unibertsitateek Fortun Santxez Iraetakoa artzapezarekin auzia izan zutela, opalkuntzak jasotzen zituelako, eta auzi hartan gastu handiak egin zituela.

6) Ea zekiten eliztarrek Migel Agirre erretoreari bi elizetako zerbitzua zabaltzeko bi benefiziadu ipintzea eskatu ziotela, eta Otxoa Martinez hain zuzen Lezora Untza batxilerrarengana joan zela haren iritzia eskatzera. Ea zekiten bi apaizak eta Otxoa Martinez Tolosan izan zirela, eta apezpikuaren aholkuz Oikiako Igartzan bilduta bi apaizak berriz aurkeztu zituztela. Ea zekiten Fortun Santxez artzapezak aurka egin eta auzitara eraman zituela. Ea zekiten han ere gastuak egin zituela.

7) Ea zekiten Otxoa Martinezek Tolosara bikario nagusiarengana lekuko hauek eraman zituela: Joan Perez Mantzizidorkoa, Joan Agirre, Julian Asu, Migel Iturregi eta Martin Narbazta. Ea zekiten haien gastuak eta beste hainbat ordaindu zituela.

8) Ea zekiten elizbarrutiko ofiziala Iruñera joan

zela, eta Otxoa Martinezek, bertara joanda, 18 egun igaro zituela.

9) Ea zekiten benefiziadu berrientzat postuak sortzen zirenean Iruñean ofizialei, idazkariei eta abarri eskubideak ordaindu egin behar zitzaizkiela eta Otxoa Martinezek 6 dukat ordaindu zituela.

10) Ea zekiten Otxoa Martinezek Ollakerizketa idazkariari 4 dukat eman eta 2 zorretan utzi zituela.

11) Ea zekiten Otxoa Martinezek lanegun bakoitzagatik Gaztelako 4 erreal merezi zituela, eta kristau ona zela.

Ondoren Aizarnazabalgo elizaren aurrean lekukoek beren erantzunak eman zituzten. Aizarnazabalgo Migel Agirre erretoreak erantzun zuen lehenbizi. 56 urte zituen. Joan Martinez Amilibikoa eskribauaren aurrean Otxoa Martinez zestoarrari ahalordea eman omen zioten auzietarako. Galderei, oro har, baiezkoa erantzun zien. Martin Etxezarreta eta Beltran Mantzizidor izendatu zituzten bi elizetarako benefiziadu berri. Erretoreak hamarrenen erdia jasoko omen zuen, eta bi benefiziaduek beste erdia.

Hurrengo 34 urteko Joan Perez Mantzizidorkoak erantzun zuen. Otxoa Martinez Beduakoa laugarren mailako senide omen zuen. Oikiako Igartzan Zestoako Blas Artazubiaga eskribauaren bidez ahalordea eman omen zioten Otxoa Martinezi auzietarako. Galderei, oro har, baietz erantzun zien, baina Otxoa Martinezek zenbateko gastuak ordaindu zituen ez zekien.

Jarraian Joan Mirubiaren txanda izan zen. 35 urte zituen eta Aizarnazabalen bizi zen. Luis Perez de Palencia korrejidorea etorri omen zen Saiazera Alonso Idiakaitzen prokuradoreei bi elizen patronatua ematera. Galderek ziotena ontzat eman zuen, oro har.

52 urteko Martin Etxezarreta apaizak ere antzera erantzun zuen; halaber 30 urteko Aizarnazabalgo Joan Urainziar apaizak eta 52 urteko Joan Asuk ere. Getariako Migel Iturregik, 65 urtekoak, 6, 8, 9 eta 10. galderei erantzun zien.

Saiazko eta Oikiako unibertsitateek, korrejidorearen aginduz, lau lekuko hauek izendatu zituzten: Joan Sarasola, Joan Esnal, Martin Perez Mantzizidorkoa, Joan Esnal eta Mateo Mantzizidor. Joan Sarasolak erantzun zuen lehenbizi, labur erantzun ere, galdera gutxi batzuei.

4.2. irudia. Oikiako Mantzizidor (desagertua).



40 urteko Martin Perez Mantzizidorkoaren txanda izan zen gero. Galdera gutxi batzuei labur erantzun zien honek ere. 57 urteko Mateo Mantzizidorrek zerbait gehiago erantzun zuen. Berdintsu jokatu zuen 40 urteko Otxoa Esnalek ere.

- 1534-VI-14an, Ibañarrietan, Esteban Eztiolak Otxoa Martinez Beduakoari hamar erreal kobratu zizkion testigantzak jasotzen egin zuen lanagatik (ikus [XVI. m. (34-I) 1] agiria).

4.1.2. Debako Kontzejuak Arroako elizako patronatuagatik izandako auzia

- 1534-III-11n, asteazkenez, Debako Itziarren Sebastian Arriola eskribauaren aurrean Joan Guadalupe, Kontzejuko fiela, azaldu zen. Fernando Zubeltzu alkatea ere bertan zen. Fielak alkateari jakinarazi zionez, pertsona batzuek Erroman Aita Santuaren bulda lortuta, Arroako San Esteban elizako bikariora hartu zuten. Eliza hartako patronatua, ordea, Debako Kontzejuak zeukan erregearen mesedez, eta legez kontrakoa zen Arroan egin zutena. Alkateak parte hartu behar zuen, eta arazoa konpondu. Debako Iñigo Ibarrola, Migel Sasiola eta Joan Martinez Olanokoa izan ziren lekuko.

- 1534-III-13an, Arroan, Sebastian Arriola eskribauaren aurrean Debako Fernando Zubeltzu alkatea eta Joan Guadalupe fiela azaldu ziren. Kontzejuak zeukan patronatuaren kaltetan, Joanes Kortazar batxilerrak erregeen pragmatikei aurka egin zien Erroman bulda lortuta, eta alkateak lekukoei testigantzak hartuko zizkien. Joan Guadalupek horretarako Arroako lekuko hauek aurkeztu zituen: Martin Gartzia Arriolakoa apaiza, Maria Joanes Arriola, Katalina Ibarguen, Domeka Igartza, Domeka Sorazabal, Ana Olaeta eta Maria Oliden. Zin egin zuten egia aitortuko zutela, Domingo Zerain eta beste debar baten aurrean.

Egun berean, Arroako Kutrulo etxean, Joan Guadalupek lekuko hauek aurkeztu zituen: Madalena Kutrulo, Grazia Kutrulo eta Ana Kutrulo. Hauek ere zin egin zuten, Txomin Gascon eta Joan Artzuriagaren aurrean.

- 1534-III-16an, Deban, Joan Guadalupek lekuko hauek aurkeztu zituen: Joan Lopez Irarrazabalgoa, Pedro Arantza, Domingo Zerain, Joan Gartzia Likonakoa, Domingo Etxenagusia eta Joan Armendia. Zin egin zuten Debako Domingo Alvarado eta Joan Lopez Oleakoaren? aurrean.

Joan Guadalupek lekukoei egiteko galdera hauek prestatu zituen:

1) Ea ezagutzen zituzten Joan Guadalupe fiela, Debako Kontzejua, Debako elizako Paulo Artzuriaga (bizialdirako bikarioa), bertako apaiz eta benefiziaduak eta Arroako eliza.

2) Ea zekiten bikario edo benefiziaduen posturen bat hutsik geratzen zenean Kontzejuak aurkezten zuela (patronatua zuelako) apaiza postu horretarako, eta gero Iruñeko apezpikuak izendatzen zuela.

3) Ea zekiten Arroako bikario izateko Kontzejuak eta bertako apaizek erabakitzen zutela nor aurkeztu.

4) Ea zekiten pertsona batzuek ezkutuan eta legez kontra Erroman bulda lortuta Arroako elizatik Martin Gartzia Arriolakoa bikarioordea indarrez eta bortxaz atera zutela, eta errudun zirela. Indarka atera zutenen izenak esan zitzatela.

5) Ea zekiten Arroako elizako atean bortxatzaileek ezarritako paperek zer zioten edo bortxatzaileek paperek ziotena aipatu zuten.

6) Ea zekiten hura guztia inguru haietan ezaguna zela.

Lehenbizi Martin Gartzia Arriolakoa apaizak erantzun zuen. Lehen eta bigarren galderei baiezkora erantzun zien. Arroako bikarioorde Domingo Areitzaga hil zenean, Debako apaizek Arroako postu horretarako Pedro Ormaetxea eta Martin Segura aurkeztu omen zituzten.

Martxoaren 10ean, asteartez, Joan Zelaia apaiza etorri omen zen Martin Gartziarengana. Azpeitiko

4.3. irudia. Arroagoiko apaiz-etxea.



eskribau bat, Albizturko apaiz bat eta beste batzuk lagun omen zituen. Gasteizko Santa Piako abadeak emandako epaiaren berri eman omen zion. Arroako behin betiko bikario izateko 15 eguneko epean norbait aurkeztu behar zuten. Hurrengo egunean, goizean, Joan Zelaia apaiza bost lagun-tzailerekin etorri zen. Elizara sartu ziren, eta han, Arroako Joanes Kortazar batxilerrarentzat, hau behin betiko Arroako bikario izan zedin, Aita Santuaren bulda erakutsi zuten. Joanes Kortazarrentzat hamarrenen herena izango zen.

Martin Gartzia Arriolakoa indarrez atera zuten Arroako elizatik, eta orduan Martinek han zeuden emakumeei lekuko izan zitezela eskatu zien. Elizako atean bulda ezarri omen zuten. Joan Zelaia eta lagunek Arroako Kutrulo etxean lo egin omen zuten. Etxe hartakoa omen zen Joanes Kortazar apaiz batxilerra.

Debako Maria Joanes Arriolak zioenez, martxoaren 10eko gauean Joan Zelaiaren bi lagunek Joan Ezkerraren etxean lo egin omen zuten, eta besteek Kutrulon. Iraetakoen etxe berriaren atarian zegoela ikusi omen zuen Martin Gartzia elizatik indarrez atera zutela.

Debako Domenja Sorazabal serorak ere antzeko erantzuna eman zuen. Elizara bi apaiz eta zaldun bat (urrezko idunekoa eta tertziopelozko soinekoa zituen) sartu omen ziren. Erromantzez mintzatu omen ziren elizan.

Maria Loieta arroarrak zioenez, Joan Zelaiarekin Joan Albiztur apaiza eta beste bi etorri ziren mutil gazte batekin. Kutrulon Joanes Kortazarren ama, anaia eta arreba bizi omen ziren.

Madalena Kutrulo lekukoak zioenez, Debako Paulo Artzuriaga bikarioa, Domingo Alos eta Domingo Debaide apaizak ezagutzen zituen. Joanes Kortazar batxilerra semea zuen eta Erroman omen zebilen.

Ana Kutrulo lekukoak ere antzera erantzun zuen. Joan Zelaia, Joan Albiztur eta Azpetiko Migel izeneko beste bat ibili omen ziren elizan. Domingo Etxenagusia semea ere joan omen zen Kutrulora.

Grazia Kutrulo alargunaren txanda izan zen gero. Joan Zelaia eta lagunak Debara zihoazela, Domingo Etxenagusia eta Joan Armendiarekin hitz egin omen zuten.

Domingo Agoteren emazte Ana Olaeta debarrak hitz egin zuen gero. Aurrekoek bezalatsu erantzun zuen. Arroako elizako Domeka Igartza serorak zioenez, bortxatzaileek elizako atean pergaminoa itsatsi zuten, eta gero, hura kenduta, papera. Aurkariak eskumikatzeko omen zen. Katalina Ibarguenek zioenez, agiri bat elizako atean ezarri zuten, eta beste bat horman.

Domingo Etxenagusiak, oro har, galderei baiezkoa erantzun zien. Martin Gartzia Arriolakoa elizatik atera zutenak Joan Zelaia, Eskoriatza izeneko bat eta Azpeitiko apaiz bat izan omen ziren. Bezperan Joan Zelaiarekin Gasteizko epaiatz hitz egin omen zuen. Semea bidali omen zion, Joan Fernandez Dorrekoak eskatu ziolako, honek Joan Zelaiarekin hitz egin nahi zuela eta.

Joan Armendiak zioenez, bezperan Joan Zelaiarekin hitz egin zuen Gasteizko epaiatz, Joan apaiza eliztarren prokuradore zelako. Joan Zelaiarekin Aranako abade gaztea eta Beizamako apaiz bat omen zeuden. Joan Lopez Irarrazabalgoak, oro har, baiezkoa erantzun zien galderei.

- 1534-X-20an, Deban, Sebastian Arriola eskribauaren eta Joan Garate alkatearen aurrean, Domingo Alvarado eta Joan Ibañez Areitzagakoa fielak azaldu ziren. Urretxuko Joan Zelaia, Migel Zarautz azpeitiarra, Albizturko Joan Mendizorrotz, Elgetako Joan Gerrikaitz eta Joan Eskoriatza errudun ziren, eta errege-aginduaren ondorioz, alkatearen aurrean azalduko ziren, eta erreinuko herritarizaera kendu egingo ziren (ikus [XVI. m. (34-III) 1] agiria).

Joan Olano batxilerrak, Debako Kontzejuaren izenean, apirilaren 21ean Gipuzkoako Elgoibarko Batzar Nagusietan elizetako patronatuaren arazoa aurkeztu zuen; izan ere, Erromatik buldak lortuta eta elizetako apaizak handik zuzenean izendatuta Kontzejuen patronatuari kalte egiten baitzitzaion. Probintziak erregearengana ordezkariak bidal zitzaala eskatu zuen, gai hura zela eta auzi gehiago egon ez zedin¹.

4.1.3. Debako Kontzejuak Joan Perez Idiakaitz-Lilikoari saldutako lursaila

- 1534-V-4an, Debako elizako klaustroan, Sebastian Arriola eskribauaren aurrean, Debako Kontzejua bildu zen. Bertan ziren debar hauek: Fernando Zubeltzu alkatea, Anton Saez Agirrekoa eta Joan Guadalupe fielak, Joan Olano batxilerra (elizako administratzailea), Errodrigo Sasiola, Martin Perez Idiakaitz-Lilikoa (Domenja Liliren semea, Deban bizi zena), Martin Otxoa Irarrazabalgoa, Martin Usarraga, Joan Sorazu, Joan Albizuri, San Joan Erlete, Joan Gerrikaitz, Joan Alos Gebarakoa, Joan Matusin, Joan Gartzia Likonakoa, Dabid Matusin, Pedro Guridi eta beste hainbat.

Kontzejukoek ziotenez, Oñatiko Bidaurretako mojakomentuarekin 13.000 maraiko zorra zeukaten, eta zor hura kitatzeko herri-lurrak saltzea erabaki zuten. Debako biztanleei salduko zizkieten lurrak, bakoitzak berea zuen lurraren ondoan. Sagarrondo-azalerako unitate bakoitza gutxienez bost txanponean salduko zuten.

Salmenta haiek egiteko ahalordea eman zieten honako hauei: Joan Guadalupe fielari, Martin Otxoa Garatekoari, Joan Zigarani eta Martin Arriolari. Lau ordezkarien eta eskribauaren gastuak ordaintzeko, erosleek marai bat gehiago ordainduko zuten sagarrondo-azalerako unitate bakoitzeko.

Bestalde, lau ordezkariak Debako Goltzibarren Zestoako Joan Perez Idiakaitz-Lilikoari haren lurren ondoan urrezko 250 dukat balio zuen lursaila mugarritu eta saldu egingo zioten. Joan Perezek emandako diruaz ordainduko zuten Bidaurretako zorra.

Lau ordezkariak saldutako lurren dirua hurrengo Domu Santu egunerako Pedro Arantza poltseroak jasoko zituen.

- 1534-VII-8an, Debako Goltzibarko saroetxoan, Sebastian Arriolaren aurrean Debako Kontzejuaren lau ordezkariak (Joan Guadalupe, Martin Otxoa Garatekoa, Joan Zigarani eta Martin Arriola) Zestoako Joan Perez Idiakaitz-Lilikoarekin elkartu ziren. Le-

4.4. irudia. Goltzibar baserria.



hendik Joan Perezek Debako Kontzejuari zenbait diru kopuru maileguz emanak zizkion: 30 dukat 1530-IX-9an, 50 dukat 1530-X-6an, 40 dukat 1530-XI-28an, 60,5 dukat 1530-XII-6an eta 20 dukat 1531-I-25ean. Hau da, Joan Perezek guztira 200,5 dukat maileguz emanak zeuzkan. Beste 49,5 dukatak Debako Kontzejuoek eskatu ahala ordainduko zizkien.

Ondoren Goltzibarko saroetxoan mugarriak eta markak ipini zituzten Joan Perezi saldutako lursailaren ingurune osoan. Goltzibarren urak lurpean ezkutatzen diren zulo handiaren ondoan mugarria ipini zuten (ezkutaturiko urak Azpeitiko Ezkustako iturrian azaltzen dira). Azpeitiko lurrek ere muga egiten zuten, eta haustarri batek ere bai. Eskapaiozabaleta, Eskapaioiko iturria, Agiretatik Goltzibarrerako bidea, beste haustarri bat, Erroitza haitza eta gurutze-markako zenbait haritz hartu zituzten mugarritzat.

Sagarrondo-azalerako unitatea seinatuta txanponean saldu zion Joan Perezi, eta lursailaren prezioa guztira urrezko 250 dukatekoa zen. Kontzejuko ordezkariak hainbat berme eman zioten salmenta hura segurtatzeko. Errege-erreginei ere eskaria egin zieten salmenta onets zezaten. Salmenta-agirian lekuko honako hauek izan ziren: Zestoako Domingo Ezenarro mazolaria


eta Joan Artsuaga, eta Debako Domingo Ezenarro eta Domingo Gascon.

Egun berean, Goltzibarren, Sebastian Arriola eskribauaren aurrean, Debako Kontzejuko lau ordezkariak Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa saldutako lursailera sartu zuten. Haiek irten eta Joan Perez bertan ibili zen. Aihotzaz haritz baten adarrak moztu zituen, jabe zela adieraztearren.

- 1534-VIII-10ean, Debako elizako klaustroan, Sebastian Arriola eskribauaren aurrean Debako Kontzejuak bildu zen. Bertan ziren. besteak beste, honako hauek: Fernando Zubeltzu alkatea, Anton Saez Agirrekoa eta Joan Guadalupe fielak, Joan Sagarraga zinegotzia, Pedro Ibañez Arantzakoa, Pedro Bedua-Usarraga, Joan Gerrikaitz, Tomas Galdona, Joan Sorazu, Joan Arrona, Joan Gartzia Likonakoa, Joan Matusin, Martin Lizaso, Grazian Urruzuno, Martin Likona, eta beste hainbat.

Kontzejuak ontzat eman zuen bere lau ordezkariak Joan Perez Idiakaitz-Lilikoari Goltzibarren egindako salmenta, eta bermeak eman zituzten salmenta-agiriak zioenaren alde. Errege-erreginei eskea egin zieten, salmenta hura ontzat hartu eta berrets zezaten (ikus [XVI. m. (34-V) 1] agiria).

4.5. irudia. Debako elizako klaustroa.



4.1.4. Katalina Sasiolak Mirubian egin-dako testamentua

- 1534-VII-12an, Aizarnazabalgo Mirubia etxean, Getariako Sebastian Zabalaga eskribauaren bidez Zumaiako Katalina Sasiolak, Joan Beltran Laurgain gaztearen alargunak, testamentua egin zuen.

Katalina hiltzen zenean Laurgaingo San Migelen elizan lurperatuko zuten, Joan Beltran Laurgain aita-ginarrebaren eta Maria Lopez Zarauzkoa amaginarrebaren hilobian. Ohiko hileta-elizkizunak egingo zizkieten. Limosnak utzi zizkien eliza hauei: Laurgaingoari, Zumaiako San Pedrori, Aiako San Estebani, Aiako Aizpeko Santa Anari eta Aizarnazabalgo San Migeli.

Katalina Sasiolak zioenez, hamar bat urte lehenago alaba Maria Lopez Laurgaingoa Joan Mirubiarekin ezkondu zenean, honen aita Joan Mirubia maisu zenari alabaren dote gisa 300 dukat zahar agindu zizkion, baina harrezkero 50 dukat baino ez zizkion ordaindu. Beraz, 250 dukat zorretan zituen. Joan Mirubia suhiari eskubidea eman zion Katalinak, hain zuzen aita Jofre Ibañez Sasiolakoa batxilerraren eta ama Maria

Perez Ariztikoaren etxean zegokion senipartea kobrazezan.

Bost urte lehenago Katalina Sasiola gaixo omen zegoen burua galduta. Orduan anaia Joan Lopez Sasiolakoa batxilerrak eta anaia bikarioak Katalina bere senipartea uztera bultza omen zuten, baina Joan Lopez anaiari egindako edozein dohaintza deuseztatuzat jo zuen.

Katalina Sasiola Laurgaingo etxera ezkondu zen, eta han Joan Martinez Laurgaingoa semea, Maria Lopez Laurgaingoa eta Ana Laurgain alabak izan zituen. Katalina alargunak 25 urtean hazi eta mantendu zituen seme-alabak, eta Laurgaingo etxean zegokion senipartea alaba Maria Lopez eta suhi Joan Mirubiari utzi zien. Hauek egingo zizkieten Katalinari hiletak.

Testamentu-betearazle Laurgaingo Joan Arrazubia erretorea izendatu zuen. Testamentuan lekuko hauek izan ziren: Aizarnazabalgo Amilibiko Domingo Amilibia, Zarauzko Tomas Arrazubia eta Getariako Joan Martinez Mantelolakoa (Martin Perez Mantelolakoaren semea) (ikus [XVI. m. (34-VII) 1] agiria).

4.1.5. Maria Perez Idiakaitz-Lilikoak Nikolas Martinez Egiakoarekin egindako kontratua

- 1534-VII-20an, Arroako elizan, Debako Martin Perez Idiakaizkoa eskribauarekin hauek bildu ziren: batetik Maria Perez Idiakaitz-Lilikoak (Joan Beltran Iraetaren alarguna), eta bestetik, Maria Beltran Iraeta (Joan Beltran eta Maria Perezen alaba) eta bere senar Nikolas Martinez Egiakoa.

Lehenbizi hirurek erabat onartu zuten Joan Beltran Iraeta zenak egin zuen testamentua, eta Iraetako jauregiko maiorazkoa bideratzeko bi aldeek kontratua egin zuten. Aipatutako testamentuan Maria Beltranen ezkontzari buruz zerbait aipatzen zenez gero, delako ezkontza egina eta guztiek onartuta zegoen.

Nikolas Martinez Egiakoak Maria Perezi ezkontzako dote gisa urrezko 2.000 dukat ordainduko zizkion. Lehenbizi 1.000 dukat balio zuten Aiako Irarragorri (oraingo Illarragorri) baserria bere errotarekin, Elormendi, Umelarre eta Saletxe baserriak emango zizkion. Mugakide zituzten Iraetako etxearen Etxetako lurrak, Orendain eta Zatarain baserrien lurrak eta herri-lurrak. Beste 500 dukat urtebete barru ordainduko zizkion Nikolas-ek, eta azken 500 dukatak handik beste urtebetera.

Nikolas Martinezek fidatzaile hauek aurkeztu zituen: Donostiako Luis Cruzat, Iruñeko Joan Agirre eta Zumaiako Joan Fernandez Dorrekoa. Nikolas eta Maria Beltranen ezkontza legezko seme-alabarik gabe hausten baldin bazen, ezkontzara ekarritako ondasun bakoitza jatorrizko enborrera itzuliko zen. Hala ere, Maria Perezek Aiako aipatutako baserriak ez zituen itzuliko, haien balioa dirutan baizik.

Maria Perezek, bere bizialdi osoan, Iraetako maiorazkoko ondasun guztien gozamina berea izango zuen. Nikolas eta Maria Beltran Iraetako jauregian biziko ziren. Nikolasek eta Maria Beltranek ahalmena zuten Iraetako hurrengo maiorazkoa nor izango zen izendatzeko, aita Joan Beltranek horrela agindu zuelako. Haien semeetako bat izango zen maiorazkoa, eta semerik ezean, alabaren bat. Maria Perezek hautatuko zuen haietako zein izango zen maiorazko.

Maria Perez ama hiltzen zenean, Nikolas Martinez eta emazte Maria Beltranentzat izango zen maiorazkoko ondasun guztien gozamen osoa. Maria Perezek ordainduko zituen Joan Beltran zenaren zorrak eta geroztik egindako lanak. Gainera Ana Joanez Iraetakoaren (Maria Beltranen ahizparen) dotea ama Maria Perezek ordainduko zuen.

4.6. irudia. Iraetako Granero.



Maria Perez hain zuzen Nikolas Martinezek 2.000 dukatak ordaindu baino lehen hiltzen baldin bazen, Iraetako ondasunen gozamenetik ordainduko zituen Nikolasek; baita Maria Perezen zorrak, hiletak eta limosnak, eta Ana Joanezen dotea ere.

Maria Perez hiltzen zenean, zituen ondasun guztiak Iraetako maiorazkoari lotuta geratuko ziren. Ondasun batzuk Gipuzkoan leku deserosoan bazeuden, beste batzuek trukatu ahal izango zituzten. Nikolasek eta Maria Beltranek beren ezkontza aldiaren ondasun gehiago lortzen bazituzten, haiek ere Iraetako maiorazkoari lotuta geratuko ziren.

Maria Perez amak Fortun Santxez Iraetakoa artzapezarekin (Joan Beltranen anaiarekin) egina zuen kontratua Iraetako olatxoaz (burdinolaren ondokoaz) 1532-IV-2an, Joan Martinez Amilibikoa eskribauaren bidez. Nikolasek eta Maria Beltranek ontzat eman zuten kontratu hura.

Nicolasek eta emazte Maria Beltranek zin egin zuten Maria Perezekin egindako kontratuak zioena bete egingo zutela. Maria Perez amak, batetik, eta Nikolasek eta Maria Beltranek, bestetik, onartu zuten, egindako kontratua hausten zuenak 4.000 dukateko isuna ordaindu beharko zuten.

Kontratuan lekuko haiek izan ziren: Lekeitioko Martin Gartzia Igartzakoa (Zubietako jauna eta Maria Perezen koinatua), Zestoako Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa eta San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa lizentziatua (azken biak Maria Perezen anaiak), eta Zumaiako Nikolas Larragibel batxilerra.

Gero, Iraetako jauregian, Martin Perez Idiakaizkoa eskribauak kontratuari datarik ipini ez ziolako, Zestoako Esteban Eztiola eskribauak kopia atera zion eta 1534-VII-20koa zela zehaztu zuen, alde guztien adostasunaz. Lekuko San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa lizentziatua (urte hartara arte batxilera izana), eta Debako Fernando Sorazabal eta Joan Goienetxea izan ziren (ikus [XVI. m. (34-VII) 2] agiria).

4.1.6. San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa Martin Agoteri erositako lursaila

- 1534-X-30ean, Aiako Urdaneta auzoko Indagarate baserrian, Martin Gonzalez Seguroakoa eskribauaren aurrean haiek azaldu ziren: batetik Zestoako Altzolarats jauregiko San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa lizentziatua, eta, bestetik, Aiako Martin Agote eta Domenja Urozperoeta emaztea (Urozperoetabekoa baserriaren jabeak).

Martinek eta Domenjak San Joan Perez lizentziatuari Elkanon zeukaten lursaila saldu zioten. Mugakide zituen San Joan Perez beraren lurak (lehenago Nikolas Urozperoetari eta Joan Lertxundiri erositakoak), Getariatik Aiarako bidea, Elkanoko lurak, Txatxarro haitza, eta Izeta eta Gasteategi baserrietako lurak.

Leku hartan 16 lursail zeuden: zortzi bideaz goitik eta beste zortzi bideaz behetik. Bideaz goiko sei lursail San Joan Perezenak ziren, eta bideaz behetiko beste bost ere bai (bosgarrena orduan erosita). Gainerako bi Arbestain baserriarenak, beste bi Agote baserriarenak eta azkena Lertxundibekoa baserriarena ziren.

Martinek eta Domenjak urrezko 12 dukatean (1 dukat = Gaztelako 365 marai izanik) saldu zioten lursaila San Joan Perez lizentziatuari. Bermeak eman zizkieten eta lege askori uko egin zioten eroslearen alde. Senar-emazteek beren ondasunak hipotekatu eta zin egin zuten kontratu haren aurka ez zirela joango.

Salerosketa-agirian lekuko haiek izan ziren: Migel Illarramendi (Aginetako maizterra), Joan Gorriaran, Joan Oviden eta Domingo Garate (Saiaz, Zestoa eta Zumaiako auzotarrak).

Jarraian, eskribau eta lekuko berak aurrean zirela, Martin Agotek eta emazteak San Joan Perez lizentziatua saldu zioten lursailera sartu zuten, eta han zestoarrak zuhaitz bati zenbait adar moztu zion, jabe zela adieraztearren.

4.7. irudia. Elkanoko
Santa Kruz ermita.



Ondoren, Martin Agote eta emazteak berretsi eta ontzat eman zuten 1510-VIII-9an egindako salerosketa bat. Pedro Urozperoeta eta Maria Domikutza Urozperoeta izan ziren saltzaileak (Urozperoetabekoaren jabeak), eta Domingo Arrona zena eroslea (Altzolarats jauregiaren jabea) (ikus *II ZESTOA XVI. MEN-DEAN (151-1520)* liburuko [XVI. m. (10) 9] agiria).

San Joan Perezek Martini eta Domenjari bi dukat eman zizkien egun hartan, eta hauek bermeak eman zizkioten salmenta-agiriak zioenari aurka ez egiteko (ikus [XVI. m. (34-X) 1] agiria).

4.1.7. Beste zenbait kontratu eta agiri

- 1534-I-5ean, Zumaian, Joan Perez Elorriagakoa eskribauaren aurrean Joan Ruiz Arteagakoak Martin Diaz Mirubikoari eskubidea eman zion Zestoako Katalina Diaz Mirubikoari edo bere oinordekoei hari zor ziotena kobratzeko. Agirian lekuko hiru zumaiar hauek izan ziren: Andres Perez Indanetakoa, Joan Arbestain eta Pedro Zabala (ikus [XVI. m. (34-I) 2] agiria).

- 1534-II-28an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Joan Martinez Amilibikoa arbitroak epaia eman zuen. Desadostasunak zituzten, batetik Zestoako Joan Arregi-Zabalak, emazte Maria Zaba-

lak, Grazia Zabala serorak eta Katalina Zabalak, eta, bestetik, Zestoako Grazia Arratiak eta senar Joango Amilibiak. Zabala etxeok eskubideak zituzten Joan Perez Zabalakoa aitona zenaren ondasunetan, eta Grazia Arratiak bere ama eta izeba zenen ondorengo gisa obligazioak zituen.

Joan Martinez epaileak Zabala etxeok aldeko epaia eta Grazia Arratiaren aurkako epaia eman zuen. Honek haiei epeka 8 dukat ordainduko zizkieten. Auzi-gastuak alde bakoitzak bereak ordainduko zituen. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Otxoa Martinez Beduakoa, Klemente Aisoro eta San Joan Garratza (ikus [XVI. m. (34-II) 1] agiria).

- 1534-V-9an, Toledon, Joan Ibañetak Errege-kontseilukoengandik errege-zedula lortu zuen Hernando Pizarro kapitainaren itsasontzian Indietako Peru probintziara joateko. Geroxeago, ekainaren 2an, Sevillako Indietako Kontratazio Etxean baimena eman zioten aipatutako itsasontzian Perura joan zedin. Litekeena da delako Joan Ibañeta zestoarra izatea (ikus [XVI. m. (34-V) 2] agiria).

- 1534-V-28an, Iruñean, Reinaldo de Cancellaris apezpikuak, Alejandro de Cesarini kardinalak emandako ahalmena erabiliz, Fortun Santxez Iraetakoa ar-

tzapeza Aizarnako elizako eta honen mendeko Santa Engraziako ermitako erretore izendatu zuen.

Lehengo erretorea, Lope Iraeta, hila zen, eta Zestoako Kontzejuak eta eliztarrek Aizarnako elizako patronatua zutela aipatu zuen. Fortun Santxezek kargua hartu eta bere eginkizunak zintzo beteko zituela zin egin zuen. Haren guztiaren agiria Getarian egin zuten, Antonio Zabaleta batxiler eta kardinalaren prokuradore fiskalaren aurrean. Joan Ollakarizketak ere sinatu zuen agiria (ikus [XVI. m. (34-V) 3] agiria).

Joan Martinez Olotzagakoa kontularia Maria Lopez Altzolaraskoarekin ezkondu zenean, Bekolako etxea eta ondasunak bereganatu zituen, baina auzitan zebilen Joan Lopez Altzolaraskoa koinatuarekin Valladolidko Kantzelaritzan (ikus, adibidez, [XVI. m. (32-X) 4], [XVI. m. (32-X) 5] eta [XVI. m. (33-I) 1] agiriak).

- 1534-VII-20an, Valladoliden, Kantzelaritzako Fernando Villafranca eskribauak dei egin zion Joan Lopez Altzolaraskoaren prokuradore Joan Lopez Arrietakoari. Eskribauak agiri original batzuen kopia ateratzen zuenean, aurrean egon ahal izango zuen egiaztatzeko. Joan Lopez ez zen azaldu eta eskribauak bere kopiak atera zituen.

- 1534-VII-24an, Valladoliden, Joan Martinez Olotzagakoaren prokuradore Joan Otxoa Urkizukoak Fernando Villafranca eskribauak ateratako kopiak jaso zituen, eta auzi hartan eskatutako bakoitzean aurkeztuko zituen (ikus [XVI. m. (34-VII) 3] agiria).

- 1534-XII-12an, Zumaian, Joan Arbestain eskribauaren aurrean Arroako Joan Zugasti eta Zumaiako Maria Fernandez Otsangokoa elkartu ziren. Mariak Joani maileguz urrezko 8 dukat eman zizkion, eta Joanez konpromisoa hartu zuen Beduako portuan Mariari, hurrengo martxoko Andre Mariaren egunean, 8 kintal burdina pletinatan emateko. Agirian lekuko Zumaiako Joan Ganboa (Maria Fernandez Otsangokoaren semea) eta Joan Santxez Akoakoa, eta Arroako Martin Ermua izan ziren (ikus [XVI. m. (34-XII) 1] agiria).

- 1534-XII-14an, Zumaian, Joan Arbestain eskribauaren aurrean hauek elkartu ziren: herriko Joan Migelez Askizukoa eta Lope Izeta alkateak, Andra Maria Dorrekoa (Joan Hernaniren alarguna) eta Maria Otxoa Narruondokoa alarguna. Bi alargunek baratze bana zeukaten elkarren ondoan, eta ez zetozen bat bi baratzen arteko mugari buruz.

Ondorioz, ahalmena eman zieten Zumaiako alkateei bi baratzeen artean mugarriak ipin zitzaten. Iñigo Ibañez Dorrekoaren mahastiaren ondoan eta beste leku batzuetan lau mugarri ipini ondoren, bi aldeek ontzat eman zituzten.

Agirian lekuko zumaiar hauek izan ziren: Joan Hernani eta Joanes Areitzaga apaizak, eta Petri Irrazabal meza-mutila. Joanes Areitzagak, hain zuzen, Joan Sebastian Elkanok antolatuta Moluketara 1525. urtean abiatu zen espedizioan parte hartu zuen (ikus [XVI. m. (34-XII) 2] agiria).

4.1.8. Gipuzkoako Batzarrak eta beste zenbait gai

1534. urtean Gipuzkoako Batzar Bereziak Azkoitiko Basarten bildu ziren, apirila baino lehen². Lehen Batzar Nagusiak Elgoibarren ospatu ziren, apirilaren 18a eta 28a bitartean, Luis Lujan korrejidorea bertan zela. Hainbat gai aztertu zituzten. Andoaingo Azelaingo zubiarena zen bat. Bestalde, Hondarribia eta Errenteriako prokuradoreek eskaera berezia egin zuten. Haiek ziotenez, Probintziako Batzarretan boto kopurua ez zen sukaldeka kontatu behar, pertsona edo hiribilduka baizik. Ordenantza berria egin eta errege-onespena lortzea proposatu zuten. Besteak beste, Zestoako ordezkaria sistema berriaren alde agertu zen. Tolosa, Segura, Donostia eta beste zenbait aurka. Ordezkariak izendatu zituzten erregearen gortera gaia erabakitzerako joan zitezten.

Bizkaitik etorritako gutun bat ere aztertu zuten Batzar Nagusietan. Flandesko kontsuletxeari buruzkoa zen.

4.8. irudia. Arroako
Areitzaga.

Arrasateko prokuradoreak eskaria egin zuen, korejimenduko entzutegia eta kartzela beti Azpeitian eta Azkoitian egon zitezzen. Zestoak aldeko botoa eman zuen¹.

Hurrengo Batzar Nagusiak Deban ospatu ziren azaroaren 14a eta 24a bitartean. Zestoatik Migel Artazubiaga joan zen prokuradore, eta bertan egon zen Zestoako ermandade-alkate Martin Indo ere. Zestoako Batzar Nagusietan 1527. urtean kaparetasunaz egindako Ordenantza Gipuzkoan bete zezatela agindu zuten.

Azpeitiko eta Azkoitiko prokuradoreak kexu azaldu ziren, Iraetan presa egin zutelako eta bideak urak hartzen zituelako. Debako Kontzejuak bideak konpon zitzala eskatu zuten³.

Bide batez esan dezagun urte hartan errealak 32,8 marai balio zituela⁴.

Urte hartan, Khair al-Din *Bizargorri* kortsarioa flota handiarekin zebilen Mediterraneo itsasoan, eta Gipuzkoako korrejidoreari bertan zeuden itsasontzien zerrenda eskatu zioten. Sei galeoi, 35 itsasontzi, 23 karabela eta 8 zabra zeuden. Enperadoreak Martin Errenteriari Gipuzkoako eta Bizkaiko ontziekin armada osa zezala agindu zion. Ondoren, Granadan bildutako itsasontziekin elkartuko ziren, *Bizargorri* kortsarioaren aurka joateko⁵.

Gero ontzigintzan nabarmendu zen Frantzisko Elorriaga, 1534. urtean jaio zen Zumaian. Ternuarako arrantzuntzi handiak prestatu zituen 30 urte inguru zituenean⁶.

Karlos V.a enperadoreak, bestalde, 1534. urtean sortu zituen infanteriako tertzioak, hau da, boluntario profesional bezala osatutako soldadu taldeak⁷. Hurrengo 150 urteetan infanteria onena izan zen, su-armak eta pikak egoki konbinatzen zituztelako.

4.2. LAUGARREN KAPITULUKO OHARRAK

¹ XX. Registro de las Juntas Generales celebradas por la M. N. y M. L. Provincia de Guipuzcoa en la Villa de Elgoibar del 18 al 28 de Abril de 1534. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1927. (1-36. or.).

² ORELLA UNZUE, J. L. *Estudio iushistórico de las Juntas de Gipuzkoa hasta 1550*, in Las Juntas en la conformación de Gipuzkoa hasta 1550. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (252. or.).

³ XX. Registro de las Juntas Generales celebradas en la Villa de Deba por Noviembre de 1534. Gipuzkoako Artxibo Orokorra. Tolosa. JD AM 1,5. (1-8. or.).

⁴ LARRAÑAGA ZULUETA, M. *Aproximación al estudio económico de Gipuzkoa a través de las fogueraciones de Juntas*, in Las Juntas en la conformación de Gipuzkoa hasta 1550. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (278. or.).

⁵ LABAIRU GOIKOETXEA, E. Historia General del Señorío de Bizcaya. IV. alea. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo, 1971. (177, 178. or.).

⁶ BARKHAM HUXLEY, M. *Industria y comercio en la costa vasca durante el siglo XVI: el caso del puerto de Zumaia*, in Zumaia 650 urte. Hitzaldiak. Conferencias. Zumaia, 1999. (232. or.).

⁷ PFANDAL, L. Juana la Loca. Austral bilduma, 17. Espasa-Calpe, S.A. Madril, 1945. (24. or.).